

## AGERIKO BATZARRA

*Donostian, 2000.eko otsailaren 24an*

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 2000.eko otsailaren 24an, eguerdiko hamabi eta erdietan, eman dio hasiera Euskaltzaindiak Jose Ignazio Aranaren *Egunaria*-ren aurkezpena eta zendu berri diren A. Martinet eta Basarri euskaltzain ohorezkoen omenetan Euskaltzaindiak eraturako ageriko batzarrari. Honako jaun-andre hauek bildu dira:

J. Haritschelhar euskaltzainburua, P. Goenaga idazkaria, J. A. Arana diruzaina eta P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra eta Tx. Peillen euskaltzainak.

Euskaltzain urgazleak, berriz, J. L. Lizundia, M. Atxaga, R. Badiola, G. Barandiaran, J. M. Etxezarreta, J. M. Larrarte, M<sup>a</sup> P. Lasarte, R. M. Pagola eta J. J. Zea-rreta.

Euskaltzain jaun-andre hauez gainera, Iñaki Eizmendi "Basarri"-ren senitartekoa ere bildu dira aretoan.

Mahaian euskaltzainburuaz gainera, P. Altuna, J. A. Arana, J. L. Lizundia eta Rosa Miren Pagola jaun-andreak eseri dira. Diputazioko agintaririk ez da izan, dolu ofizialeko eguna baita.

Lehenbizi, euskaltzainburua mintzatu da, ekitaldiaren berri laburra emanaz. Ondoren, J. L. Lizundia eta J. A. Arana jaunek hitz egin dute Jose Ignazio Aranaren *Egunari*az prestatu duten prologoaz eta epilogoaz. Gero P. Altunak berak azaldu du zer den prestatu duen lana eta gainerako gorabeherak, egilearen bizitzaren zenbait zertzelada barne. Azkenik, R. M. Pagola mintzatu da Deustuko Unibertsitatearen ordezkari gisa Altuna jaunak egindako lanaren merezimendu handiez.

Hilberriei dagokienez, lehendabizi B. Oihartzabalek A. Martinet hizkuntzalariari buruz prestatu txostena irakurri du Charritton jaunak, egileak ez baitu etortzerik izan. Frantziar hizkuntzalariaren lana eta bizitza aztertu ditu eta euskal hitz-kuntzalaritzarekin izandako loturak.

Azkenik, J. M. Lekuonak Basarri bertsolari handiaren ohorez prestatutako txostena irakurri du, ohiko zehaztasunez eta goxotasunez, bertsolaritzaren historian dagoen lekua eta izan duen garrantzia aipatuz.

Eta besterik gabe, ordu biak laurden gutxitan amaitutzat eman da bilera.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Patxi Goenaga,  
idazkaria